

E-29KO MITINERAKO (zirriborroa)

ZORIONAK: BIZIRIK GAUDE, ETA HORREK ASKO BALIO DU. Greba orokor handi bat egin dugu, urtebete luze lanean gogor ari garelako... Elkarrekin, HIRU, EHNE, EILAS, ESK, LAB eta ELAko militanteok... Eta oraingoan, marka hautsi dugu: 17 egunetan antolatu dugu greba. Bizirik gaude, eta asko gara.

AUKERA EGOKIA IKUSI ETA DENA NAHI DUTE

- **ESKUINEKO POLITIKA NAGUSI da.** Botere politikoa erabat amore emanda dago, eta kapitalaren edo enpresen kontrako edozer egiteari uko egiten dio. Gobernuko parte izateko aukera dutenen artean lehia dago, ea interes horiek hobeto nork defenditzen dituen.
- **BANKUAK AGINTEAN, FRANCOREN GARAIAZ BEZALA.** Botinek (Santander) eta Gonzalezek (BBVA) agintzen dute. Erreforma gogorrek eskatzen dituzte: lan-legerian, negozioazio kolektiboan, pentsioak murriztea eta pribatizatzea, osasun publikoa ordainaraztea... eta lotsagabe, banketxeei laguntza publiko gehiago emateko eskatzen dute. Zer egin behar den esaten dute, eta gobernuek obeditu. Gobernuak kontrolpean dituzte. Txotxongilo bihurtu dira...
- **ORAIN SHOCK HONETAZ BALIATU NAHI DUTE,** langabezia masiboak zabaltzen duen beldurraz, eta beren neurriak inposatu.
- **BETIKO HELBURUAK:** Aberastasuna pilatu, prekarietatea areagotuta, eskubide sozialak murriztuta, pribatizatuz... Euren helburu bakarra, etekinak lortzea; zenbat eta gehiago, are hobeto. Eta horretarako gure eskubideekin ordain dezagun nahi dute.
- **ONDORIOA:** Arrazoa dugu. Politika horrek baztertu egin gaitu, eta SALATU egiten dugu politika egiteko era hau lotsagarria dela. Nazkatuta gaude; horregatik egin dugu GO, defenditzeko eskubide osoa dugulako.

NORA ERAMAN NAHI GAITUZTE?

1. MURRIZKETA POLITIKAK ENPLEGUA SUNTSITZEN DU. Erabiltzen dituzten errezetak batuz gero (aurrekontu murriztuak, soldata jaitsierak, prekarietate handiagoa, pentsio izoztuak, gizarte-gastu txikiagoa...) emaitza errezesioa eta langabezia da. Zer neurri hartu nahi dute ekonomiak lanpostuak sor ditzan? Ez dugu halakorik ikusten.

- Enpresa eta partikularrentzako **KREDITUAK LORTZEKO ARAZOAK...** Galdera egin beharra dago: Zertan erabiltzen dituzte banketxeek jaso dituzten milaka milioi euroak? Zergatik ez du klase politikoak honetaz hitz egiten?
- **ONDORIOA:** Enplegua ez da euren lehentasuna; ez zenbat, ez nolako lanpostuak ditugun. Areago, hartutako erabakiekin suntsitu egiten dituzte.

2. ZERGAK ETA GIZARTE-EREDUA: ELKARTASUNIK EZ

- **8.100 MILIOI euro gehiago BIL LITEZKE** bertoko zerga-presioa Europako batez bestekoa balitz (urtebetean aldea 3.000 milioitik gora hazi da). Izugarria da. Eta esaten dute dirurik ez dagoela.
- **Emaitza bikaina! Paradisu fiskalak gainezka.** Egin dizkieten opari fiskalak espekulazio eta ihes egindako kapital bilakatu dira. Dakitenek diotenez, orain adina inoiz ez dira KAPITALAK KANPORATU.
- **IRTENBIDE SOLIDARIORIK EZ DAGO...** zerga-politika honekin, bederen. Ezin dute jarraitu gizartean dauden beharrezanez ez ikusiarena egiten. Zerga-politika goitik behera aldatu behar da.
- **EZKUTUKERIA AMAITU BEHAR DA.** Eztabaida ezin da bulego itxietako gauza izan. Gai honek agenda politikoan sartu behar du, eta indar egin behar da hori lortzeko.

- 3. ERREFORMA LABORALA: ESKUBIDE GUTXIAGO, ETEKIN GEHIAGO**
- **ESKUBIDE LABORALEN AURKAKO ETENGABEKO AUZIA.** Hori ari dira Espainiako parlamentuan egiten. Uztailaren 5ean bukatuko omen da zuzenketen epea. Presaka doaz... Parlamentua azoka pertsiarra da; gure eskubideak merkatuko dituzte hana.
 - **HIRU GEZUR ERREPIKATU, HELBURU BAKARRA.**
 - o Erreforma lanpostuak sortzeko omen da. Baina hori gezurra da; legea aldatuagatik ez da bat ere sortuko.
 - o Kaleratzea garestia eta zaila omen da. Non, eta enplegu gehien suntsitu duen estatuan; noiz, eta patronalarentzat merkeena izan den krisian. Kaleratzea enpresentzat pagotxa da.
 - o Aldi baterako enplegua. Iruzurra nagusi, administrazioen oniritziari esker. Oraingoan ere aitzakia bihurtu dute, koartada biribila, eskubide laboralen beste galera bat inposatzeko. Sistema espainiarrean iruzur egiten duenari saria ematen diote: prekarietate areagotua lortzen du.
 - o Zein da euren helburua? Enpresentzako botere eta irabazi gehiago, euren aldeko desoreka handiagoa.
 - **IRITZIA.** Hau da erreformarik gogorrena, eta aurrekoen gainean pilatzen da. Kaleratze subjektiboa ezartzen du (gutxienekoa da arrazoia), diru publikoz finantzatua; kontratu berriekin kalteordaina askoz txikiagoa izango da, eta lan bila daudenekin trafikoa egiteko bidea irekitzen du...
 - **PATRONALAK GEHIAGO NAHI DU.** Negoziazio kolektiboari esku sartzea nahi du. Ez dauka negoziatu beharrik, eskatzen duen guztia ematen baitiote. Patronalik mimatuena, dirulaguntza gehien jasotzen duena, iruzur gehien egiten duena, enplegu gehien suntsitzen duena... Patronal honi gobernuek saria ematen diote.
 - **PARLAMENTUKO BOZKETA.** Baiezkoa eta abstentzioa gauza bera da. Izan ere, erreforma aurrera ateratzeko aukera ematen baitute. Erabaki hau langileen interesen kontrakoa da. Erabaki honek lan-zuzenbidea are hondatuago uzten du, enpresari nahierara jokatzeko boterea ematen baitio. Baiezko botoa eta abstentzioa eman duten argazkia (PSOE, PP, UPN, EAJ...) ez da harritzekoa; zerga-politikan lortzen den argazki bera baita. Batean eta bestean erretratu berbera.
 - **HORI DA BENETAKO ALIANTZA... BOTERE EKONOMIKOAREKIN EGINDAKO TRATUA.** Erreforma babesten dute, hasierako testua okertu ostean. Orain babesa eman diote, baina gobernuak hitz eman du azken testua, kongresutik ateratzen dena, are okerragoa izango dela.

ALDE BAKARREKO POLITIKAK GIZARTE ELKARRIZKETA ANTZERKIA DELA NABARMEN UZTEN DU

- **G.O. HONEK BESTE DEIALDI BATZUK EZ DUTEN HELBURUA DU:** Politika horiek egiten dituztenei inongo babesik ez ematea. Ezta txikiena ere.
- **CC.OO.ek eta UGTk EZ DUTE ONARTZEN behin betiko den diagnostiko bat:** Ez dago “elkarrizketa sozial” delakorik. Ez dago orain, baina ezta hazkunde garaian ere. E.S.aren krisia estrukturala da. Egiten duten horri ES deitzen jarraitzeak beste azalpen bazuk ditu. Euren “elkarrizketa soziala” ez da erreformari inongo mugarik jartzeko gauza izan. Eta baztertu zituztenetik okerrera baino ez du egin.
- **BABESIK EZ, ez Madrilen, ez Iruñea edo Gasteizen.** GASTEIZEN ETA IRUÑEAN GERTATZEN DENA LOTSAGARRIA DA. Joan den astean Moderna plana sinatu dute Nafarroan: “2030 urterarte eredu sozial eta ekonomikoaren oinarriak finkatu” nahi omen dituzte. Nola izango da greba deialdi bat sinesgarri, beste aldetik ezer gertatu ez bailitzan jarraitu nahi dutenean? Nola izango dira sinesgarri, era berean esaten dutenean “edozer gertatuta ere, eta murrizketak

iraute duena iraunda ere”, Gasteizko elkarrizketa soziala arriskutan ez dagoela esaten badute?

- **ZEIN ELKARRIZKETA SOZIALAZ ARI DIRA?** Boterearen bidelagun izateko elkarrizketa? Gehiengoak baztertuta egiten dena? Lan-harremanen eta gizarte-babesaren euskal esparrua ukatzen duena?
- **ONDORIOA:** E.S. hau gizartea kontrolatzeko eta desmobilizatzeko diruz lagundutako tresna bat besterik ez da. G.O. honen helburua ez da patronalari eta gobernuei babesa ematea. G.O. honek, gainera, gauza bat aldarrikatu nahi du kalean: euskal gehiengoak errespetatu daitezela.

ALIANZA SINDIKAL INDARTSU ETA INTEGRALA BEHAR DUGU.

- **KONPROMISOA:** Aberastasuna banatzea nahi dugu; gure jendearen eskubideak defendituko ditugu. Lanean ari direnenak eta nahi izanagatik ezin dutenenak.
- **HORRETARAKO ALIANZA SINDIKAL INDARTSUA BEHAR DUGU.** Erreforma laborala, pentsioena... Negoziazio kolektiboari erasotzen diote... Asko daukagu jokoan, gauza asko hankaz gora bota nahi baitituzte... Begira, bestela, patronala negoziatzio kolektiboan zer harrokeriaz jokatu duen. Erronka hauei erantzuteko ezinbestekoa da gure indar-erlazioa hobetu beharra. Behar-beharrezkoa.
- **G.O. EZ DA AMAIERA.** Oso baliagarria da. G.O.arekin arazoak eta alternatibak kaleratzen ditugu, botere politikoari ERABAKIAK ERAGOZTEKO, eta ARNASA EMATEN DIOGU beste hainbat borrokari, egunero enpresa eta sektoreetan egiten diren horiei... Borroka hauek ere garrantzi handikoak dira. Greba honen arrakasta beste nonbait ere jokatu da, onartzen diren neurriak esparru bakoitzean gauzatzen eragotziko duen lan sindikalean. Elkartasuna esparru guztietara eraman behar dugu. Elkartasuna zor dugu.

EGITEN ARI GARENAK MERITU HANDIA DU. Erresistentzia garaiak ditugu hauek.

- **MILITANTZIA.** Greba orokorra gure erakundeetako militanteek gauzatu dute, lan handia eginda. Gainera, informazioari dagokionez baldintza aurre demokratikoetan ateratu dugu aurrera. Eta horrek are balio handiagoa ematen dio. ZORIONAK.
- **ETBren PAPEREA:** Meritua daukagu, daukazue, komunikabide askok gureaz ez baitute hitz egiten. ETBren zuzendaritzarentzat G.O. deitu izana biharamonean ez zen albiste; programaziotik desagertarazi egin zuten. G.O.a prestatzeko kanpaina betean geundela, ETBk elkarrizketa bat egiteko deitu gintuen. Noizko? Biharko, hilak 30erako. Baina bihar ez gara joango. Izugarria da. Garai ilunak. Gobernuak ETB lotsagabe manipulatu du. Eta lotsagabea da guk ordezkatzeko dugun honi egiten dioten mespretxua...

ARAZO BAT DAUKATE. Hau benetakoa da. Hemen gaudenok errealitate bizi bat gara. Hortara jartzen garenean eta elkarrekin lan egiten dugunean gizartea mugitzen dugu. Jende askok guregandik asko espero du; jende asko baitago nazka-nazka eginda... Jende horrek behar gaitu, eta ez diegu kale egingo. Ez horixe!

GORA Euskal HERRIKO LANGILERIA!